

## PRENTSA OHARRA

### Guatemala, Ekuador eta Boliviako ordezkari politikoei egin dien harreran

Quirogak: “Erakunde batek, iraungo badu, ordezkatzeko dituenen egiazko arazoak konpontzeaz arduratu behar du ”

Legebiltzarreko lehendakaria harro dago Euskadiko erakunde arkitektura “inorentzako erreferentzia izateaz”

“Bisitak agerian uzten du euskal erakundeak Euskadiko beste irudi bat islatzen ari garela, prestigioa emanez batzen gaituenari, ditugun desberdintasunen gainetik”

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak hartu egin ditu gaur Ganberan Guatemala, Ekuador eta Boliviako ordezkari politiko batzuk. Ordezkari horiek, Mugarik gabe-ren eskutik, Euskadiko erakundeak bisitatzen ari dira Euskadiko autogobernuaren esperientzia lehen eskutik ezagutzeko.

Quiroga harro agertu da Euskadiko erakunde arkitektura “inorentzako erreferentzia izateaz, kanpoko jendeak guri bisita egiteaz gure ispiluan begiratzeko eta, halaber, xehetasunak eskatzeaz bai gure iragan eta orainari buruz bai eta geroari ekiteko moduari buruz ere”.

“Aztertzeke hautatutako eredu egokia da zeren hemen, gure abileziekin eta akatsekin, denon artean uztartzen jakin baitugu gure tradizioz maiteenak etorkizunarekin, etorkizun horrek ezinbestean bultzatzen baitigu aurrerantz begiratzera eta gure hobekuntza-nahia beti bizirik edukitzera”.

Quirogak azpimarratu egin du zer albiste ederra den gure erakundeetatik Euskadiko beste irudi bat zabaltzen jardutea, batzen gaituena baloreen jarritik –ikusten dugunez, asko baita–, bereizten gaituena gainetik. Etengabeko gatazkan murgildutako Euskadi baten irudia uxatuz, gainera”.

Arantza Quirogak ordezkari horiei adierazi nahi izan die nola, gure Ganberaren 30 urteko esperientziaren ondoren, oso argi gelditu behar duen, erakunde batek iraun egingo badu, nahitaez arduratu beharra daukala ordezkatzeko dituenen egiazko arazoak konpontzeaz. Bestela esanik: erakunde baliagarritasuna zuzenki proportzionala da beren bizilagunen egiazko arazoak konpontzeko duten gaitasunari. Guztiz garbi izan behar dugu beti inoiz ez dugula aldendu behar herritarren kezketatik, baldin eta nahi ez badugu herritar horien artean nagusitzerik gure erakunde politikoenganako desatxikimendua”.

Berriro ere ongi etorri esan eta Mugarik Gabe-ren ekimena goratu ondoren, Arantza Quirogak opa egin die “bisita hau probetxugarria izatea aurrera daramaten bidean, hain zuzen ere, nola beren herrikideak ordezkatzeko modurik egokiena aurkitzeko hala euren arazoak erarik eraginkorrean konpontzen saiatzeko”.



## NOTA DE PRENSA

### Durante su recepción a representantes políticos de Guatemala, Ecuador y Bolivia

**Quiroga: “Una institución sólo pervive si se preocupa por resolver los problemas reales de aquellos a quienes representa”**

**La presidenta del Parlamento, orgullosa de que la arquitectura institucional del País Vasco “sea una referencia para terceros”**

**“La visita evidencia que las instituciones vascas estamos reflejando otra imagen de Euskadi, prestigiando lo que nos une por encima de nuestras diferencias”**

La presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, ha recibido hoy en la Cámara a representantes políticos de Guatemala, Ecuador y Bolivia que, de la mano de Mugarik Gabe, están recorriendo las instituciones vascas para conocer de primera mano la experiencia del autogobierno de Euskadi.

Quiroga se ha mostrado orgullosa de que la arquitectura institucional del País Vasco sea “una referencia para terceros, nos visiten para mirarse en nuestro espejo y se recaben datos sobre nuestro pasado y presente, y sobre cómo pretendemos abordar el futuro”.

“El modelo a examinar, ha dicho la presidenta de la Cámara, es acertado, porque aquí, con nuestros aciertos y errores, hemos sabido conjugar entre todos nuestras tradiciones más queridas con el futuro que nos empuja de manera inexorable a mirar hacia adelante y mantener siempre vivo nuestro deseo de mejora”.

Quiroga ha destacado la magnífica noticia que supone el que desde nuestras instituciones estemos contribuyendo “a reflejar otra imagen de Euskadi, poniendo en valor lo que nos une, que como vemos es mucho, por encima de los que nos separa. Desterrando además la imagen de un País Vasco en conflicto permanente”.

Arantza Quiroga ha querido transmitir a dichos representantes que, después de 30 años de experiencia de nuestra Cámara, tiene que quedar muy claro que “una institución sólo pervive si se preocupa por resolver los problemas reales de aquellos a quienes representa. Dicho de otra forma: la utilidad de las instituciones es directamente proporcional a la capacidad de resolver los problemas reales de sus habitantes. Siempre debemos tener presente que nunca hay que alejarse de las inquietudes de los ciudadanos, si no queremos que se haga fuerte entre éstos el desapego hacia nuestras instituciones políticas”.

Tras reiterarles la bienvenida y resaltar la iniciativa de Mugarik Gabe, Arantza Quiroga ha deseado que esta visita “les sea útil en su camino por encontrar la manera más acertada de representar a sus convecinos y tratar de solucionarles sus problemas de la manera más eficaz”.

